BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4201

EBAZPENA, 2015eko irailaren 15ekoa, Etxebizitzako sailburuordearena, Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta ondare eraikia birgaitzeko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aginduz deitu diren laguntzak ebazten dituena.

Aipatutako laguntzen deialdiari buruzko txostena aztertu da.

GERTAKARIAK

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduak Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta ondare eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen du. Agindu hori Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko urriaren 23ko Aginduak aldatu zuen.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko azaroaren 26ko Aginduan adierazten dira aipatutako 2007ko maiatzaren 2ko Agindu horretan aurreikusitako laguntzak aurkezteko epea eta lekua.

Aipatutako agindu horretan aurreikusitako Balorazio Batzordeak epearen barruan aurkeztutako eskariak eta dokumentazioa ebaluatu ditu, eta dagokion ebazpen-proposamena aurkeztu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko maiatzaren 2ko Aginduaren 12. artikuluak adierazten du diru-laguntzen deialdia ebazteko organoa Etxebizitza Sailburuordetza hau dela.

Aipatutako xedapenak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen aplikagarriak aztertu ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Udalei eta/edo udal hirigintza-elkarteei diru-laguntzak emateko aukera ukatzea jarraian zehaztuko diren dokumentuak idazteko, azaltzen diren arrazoiengatik.

Eskatzailea	Azalpena	Ezespenaren arrazoia
Aramaioko Udala	Ibarrako Hiri-berrikuntzaren Plan Berezia.	Laguntzak eman aurretik hasi da dokumentuaren idazketa.
Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	Lurpeko Azterlan Geologikoa	Idatzi beharreko dokumentua ez da diruz lagungarria, Aginduaren xedearekin ez datorrelako bat.
Getariako Udala	Mendebaldeko Behatokiko berhiritartze proiektuaren idazkuntza	Laguntzak eman aurretik hasi da dokumentuaren idazketa.
Zarauzko Udala	Alde zaharra oinezkoentzat jartzeko proiektuaren idazkuntza (2. Fasea)	Hutsegiteak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez izana.

Bigarrena.– Udalei edota udal hirigintza-elkarteei diru-laguntzak ematea jarraian zehaztuko diren proiektuak idazteko, eranskinean zehazten diren kopuruetan eta ehunekoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunei, eta jakinaraztea ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaiola Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek honen berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 15a.

Etxebizitzako sailburuordea,
M.ª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.

ERANSKINA - ONARTUTAKO ESKAERAK

BIRGAITZE INTEGRATUKO AREETAN EDO BIZITEGI AREA DEGRADATUETAN ONDARE URBANIZATUA ETA ONDARE ERAIKIA BIRGAITZEKO LAGUNTZAK

LURRALDE HISTORIKOA	ESKATZAILEA	EREMUA	ZB.	AZALPENA	AURREKONTU ESKATUA		AURREKONTU KALKULATUA		AURREKONTU ONARTUA	
					EUROAK	EMA/HA	EUROAK	BEZ+	EUROAK	%
	Aguraingo Udala	Gune Historikoa	1	Birgaitze Plan Bereziaren azterketa	62.197,15	10,08	50.410,00	60.996,10	60.996,10	100
	Areatzako Udala	Alde Zaharra	1	Azterlan Soziourbanistikoa	15.000,00	5,84	8.755,20	10.593,79	10.593,79	100
	Vitoria-Gasteizko Udala / 21 Zabalgunea	Herrigune Historikoa	1	Bizitegi eraikinen xehetasun bilketa.	153.040,80	26,12	31.344,00	37.926,24	37.926,24	100
ARABA	VItoria-Gasteizko Udala	Herrigune Historikoa	1	Lamiak Cañoa Birgaitzeko Proiektuaren Idazkuntza	29.062,52	330.000,00	14.850,00	17.968,50	17.968,50	100
	Ondarroako Udala	Herrigune Historikoa	2	Urbanizazio Proiektuaren Idazkuntza-Altxaera topografikoa	12.188,35	250.017,36	14.388,35	17.409,90	12.188,35	100
	Lanestosako Udala	Herrigune Historikoa	1	BPBren azterketa eta egokitzapena	57.256,50	11,45	57.256,5	69.280,37	57.256,50	100
BIZKAIA	Lanestosako Udala	Herrigune Historikoa	1	Azterlan soziourbanistikoa	17.176,95	11,45	17.177	20.784,11	17.176,95	100
	Bergarako Udala	Gune Historikoa	1	Zubietako sarbideen berrurbanizazio proiektuaren idazkuntza	45.000,00	1.560.000,00	58.500,00	70.785,00	45.000,00	100
	Bergarako Udala	Gune Historikoa	1	Zubietako Zubia birgaitzeko proiektuaren idazkuntza	10.800,00	50.000,00	2.812,50	3.403,13	3.403,13	100
	Bergarako Udala	Gune Historikoa	1	Masterreka Kaleko berrurbanizazio proiektuaren idazkuntza	18.000,00	728.800,00	30.063,00	36.376,23	18.000,00	100
	Eibarko Udala	Murrategi	1	Azterlan Soziourbanistikoa	10.000,00	0,90	4.000,00	4.840,00	4.840,00	100
	Eibarko Udala	Txonta	1	Azterlan Soziourbanistikoa	30.000,00	0,60	4.000,00	4.840,00	4.840,00	100
	Getariako Udala	Alde Zaharra	4	Berhiritartze proiektuen idazkuntza (Menditxo/ Bista Ona)-Altxaera topografikoa	37.100,00	100.000,00 / 260.000,00	22.025,00	26.650,25	26.529,25	100
	Errenteriako Udala /Oarso Aldea, S.A.	Gune Historikoa	1	Azterlan Soziourbanistikoa	6.366,00	3,37	7.073,43	8.558,85	6.366,00	100
	Olaberriko Udala	Yurre	1	Azterlan Soziourbanistikoa	4.900,50	3,69	7.756,14	9.384,93	4.900,50	100
GIPUZKOA	Legazpiko Udala	San Inazio - San Jose Arantza	3	Azterlan Soziourbanistikoa-BIPB-Altxaera topografikoa	40.275,00	6,02	44.130,00	53.397,30	40.275,00	100
					GUZTIRA				368.260,31	